

BILBOKO EUSKARAREN
IKUSPEGI DIAKRONIKO BAT
MIKOLETAREN INGURUAN

ASIER GONZALEZ CASADO

SARRERA

Ikerlan honen asmoa bikoitza izan da.

Alde batetik, 17. mendeko Bilboko euskararen ezaugarriak aurkeztea du lehen helburu, Mikoletaren ikasbidean agertzen diren formak aztergai izanda.

Bestetik, hizkuntzak (zentzu zabalean, dialektoak eta aldaerak ere) estatikoak ez diren heinean forma horiek ezerezetik sortzen ez direnez, Bilboko hizkeraren garapen diakronikoari arreta jarriko diogu, neurri txiki batean, zehaztutako ezaugarri horiek egoera zaharrago baten isla diren edota noizko berrikuntzak diren jakiteko asmoz.

Lan honen zabalerak ez du xehetasun asko ematea ahalbidetzen, eta beraz gehiegi sakondu gabe ezaugarri bereizle nagusiak aipatuko dira, alderdi deigarrienak kontuan hartuta.

Esan bezala, Mikoletaren “Modo breve de aprender la lengua vizcayna” izan dugu ardatz ikerlan osoan zehar. Lan horren egilea Rafael de Mikoleta Zamudio dugu, apaiz bilbotarra, 1611. urtean jaioa eta Bilboko San Anton elizan bataiatua. Apaiza izateaz gain, lizentziaduna, doktorea eta epailea ere bazen. Beraz, bere garaiko gizon jantzia.

1653. urtean euskara ikasteko metodoa ondu zuen, dirudienez merkatari ingeles baten enkarguz. Bere ikasbide eskuizkribatua Londresen aurkitu zen 19. mende bukaeran, eta hortaz Bilbo eta Ingalaterraren arteko merkatal harreman luze eta zaharren testuinguruan ulertu da lanaren agerpena. Lana gaztelaniaz dago idatzita, eta ikasbidean zehar egileak erakusten duen (eta irakasten saiatzen den) euskal hizkera mendebaldekoa da.

Mikoletaren lanak 4 atal nagusi dauzka:

- Hasierako azalpen gramatikala, non gehienbat izen eta aditz paradigma batzuk topatzen diren, egilearen ohar txiki batzuekin erabilera zehazteko (baina ez beti oso zuzenak edo zehatzak). Eredu latindar-erromantzeari jarraitu dio atal honetan kasuak sailkatzean edota aditz denborak aurkeztean.
- Sarrera horren ostean, ikasbidearen atal luzeena datorkigu: hiztegitxo (orotara 815 sarrera buru). Gaztelania iturri hizkuntza, eta euskara xede hizkuntza. Garai hartan ohitura zen legez, hitz eratorriak jatorrizko hitzaren ondoren agertzen dira (eta ez hurrenkera alfabetikoan). Sarrera batzuetan, erdal hitzaren alboan lagungarri bat idatzi zuen (esanahia zehazteko), eta halaber euskal ordainaren alboan. Badira hiztegian azalpentxo gramatikal bakan batzuk ere (eratorpen atzizkiren bat nola erabili, perpaus kausalak nola eratu etab.). Hiztegia eta gero, bi eranskin gehitu dizkio: zenbakiak eta asteko egunak¹
- Hirugarren atalean irakurleari zuzentzen zaio euskal bertsogintza erakusteko. Sarreratxo

1 Hilabeteen izenak ez ditu ematen “mendietan eta nekazarien artean baino ez direlako erabiltzen”.

baten ondoren, bi olerki ematen ditu. Hauetan dagoen euskarak arkaismo gehiago dauzka (esaterako, aoristo perifrastikoak sistematikoki).

- Azken atala elkarrizketa luze batek osatzen du. Mikoletak John Minsheu batek idatzitako gaztelaniazko ikasbidean zegoen elkarrizketa berbera hartu eta euskaratu zuen. Testua bera Mikoletak ondu ez arren, bere itzulpenean hizkera ahozkoa eta informala islatzen da, bizia eta sendoa.

Mikoletaren lan hau lanabes nagusi gisa hartuta, guztira 920 euskal hitz inguru bildu nituen taula batean, hiztegiko errepikapenak kenduta, gehi eranskinetan, olerkietan eta elkarrizketetan agertzen direnak. Hori izan da nire corpus lexikografikoa.

Horretaz gain, azalpenetan, olerkietan eta elkarrizketan islatzen diren forma gramatikalak morfologia eta sintaxiko alderdietako ezaugarriak bilatzeko erabili ditut.

Mikoletaren lana ez ezik, 16. mendeko “Refranes y Sentencias”² liburua erreferentzia gisa hartu dut, Bilboko edo inguruko hizkera zaharrago batekin erkatzearren. Liburu hori atsotitz eta esaera zaharren bilduma da, eta zantzu guztien arabera erakusten duen hizkera mendebalde muturrekoa da, nahiz eta Iruñean inprimatu. Era berean, 1986. urteko Iñaki Gaminderen “Bilboko euskara aztertze materialak” artikulua³ aztertu dut, harrezkero Bilboko hizkeretan gertatu diren aldaketak antzemateko.

Tarteka-marteka, Landucciren 16. mendeko Gasteizko euskararen hiztegia⁴, Lazarraga arabarraren eskuizkribua (16. mendekoa), Kapanaga durangarraren 17. mendeko dotrina, Viva Jesus Orozko inguruko dotrina (17. mendekoa) eta Betolatza arabarraren dotrina (16. mendekoa) hartu ditut kontuan zenbait ezaugarri testuinguru batean kokatzeko (geografikoki eta diakronikoki).

Corpusa behin mugatuta eta osatuta, atalka joan naiz eskura nituen formak arakatzuz.

Lehenik eta behin, azaleko kontuez arduratu naiz, eta horrela Mikoletak zerabiltzan konbentzio ortografikoak izan ditut aztergai, aldaketa fonetikoak testuan zenbateraino islatzen diren zehazteko helburuarekin.

Morfologiari eta morfosintaxiari dagozkien kontuak batez ere olerkietatik eta elkarrizketatik atera ditut, gerora azalpenetan dauden paradigmekin irudia osatuz.

Azkenik, hainbat elementu lexiko konparatu ditut goian aipatutako beste iturri batzuekin dialektologikoki kokatzearren.

2 Hemendik aurrera *RyS*

3 Hemendik aurrera *Gaminde*

4 Hemendik aurrera *Land*

ANALISIA

ORTOGRAFIA

17. mendeko euskal testua dugu esku artean, eta hemen oso nabarmen agertzen zaizkigu ortografia arloan gauzatzen diren gabeziak eta doitasun ezak. Gauzak horrela, ezin ditugu beti ondo bereizi hizkeraren ezaugarri fonetikoak eta eskribauaren huts soilak, zeina, aurrerago ikusiko dugunez, koherentea ez den. Jarraian, gertakizun horietako batzuen berri emango dut.

Txistukariak

Hizkera honetan /s/ eta /s/-ren arteko bereizketa galdua dela eta, <s>, <ss>, <z>, <c> eta <ç> grafemak erabat nahasita lekukotzen dira:

- *astu, aussoa / auso, azala / asala, balsa, bizarra / bissarra, basterra, ysan, bisia, egusquia, eroçi, eronsi, essarri, guerisea, gusurra, assi / açia / asia, assurra, ossasuna, ussoa / usacumea, syla / zyla*
- <n> baten ondoren gehienetan <ç>, baina batzuetan <s>⁵: *aunça / basaunsa, burrunça, dançea, punçuniñoa, uncea, arauñça / arrausa, esconsea, onsa*
- Hitz hasieran beti <s>: *sura, sorsi, suria, sesena, suloa, seren (çeatu, zaguia izan ezik)*

Bestalde, <x>, <g> eta <j> grafemen nahasketa, batzuk txistukariak izan zitezkeenak, besteak ez; ez da erraza jakitea zein hotsi legozkiokeen grafema hauek, hitzez hitz emaitza desberdinak ditugulako, batzuetan /s/ eta besteetan /j/:

- *oxala (RyS ojala), egildu (RyS exilic), xarroa (Gaminde yarroa), xo (Gaminde yo), xaquin (Gaminde yaquiñ), frigidu (?)*
- *agea / axea, elejea / elexara, xupoea / jupoea, xosi / jostorraza, chijea / chishea*

Txistukari afrikatuei legozkiokeen <s>, <ss>, <z>, <ts>, <ç>, <sz> eta <zs> grafemen tratamendua:

- Batzuetan <s> soila: *yrcasi, ames-eguin, arrausa, basuc, bisuc, esea*
- Besteetan <ss>: *amessa, asso, asserengoa, francessea*
- Gutxi batzuetan <ts>: *ytsuric, ytsasoa, atsoa, etsea*
- Batzuetan <z> afrikatua: *garraza, gaza, oz / ossa, maza, mazorria, mayaza, martizena, puzeguin, puza, vioza, viza, orraza, ardaza*
- Bestelakoak <ç>, <sz>, <zs>: *amaraça, emereçi, yçutu / ytsuric, osza, ozsoa*

5 Ez dago modurik jakiteko frikari ala afrikatu ahoskatzen ziren.

Ozenak

Sail honetan ere nahasketa handiei bidea ematen zaie, baina, txistukarietan ez bezala, badirudi honetan auzia grafiko hutsa dela.

Dardarkariak <r> eta <rr> banaketa librean (irizpiderik ez) topatzen ditugu:

- *amaradu, berrori (ABS/DAT), berori (ABS/DAT), angerrua, arauñea, aterra, varuan, belaria, oraza, erasti, essari, guerro, amarr / amaraça, liburrua, madarria*

Urkarien kasua antzekoa da, eta horrela <l> eta <ll> lekukotzen diren arren, batzuk sabaikariak izan daitezke, eta besteak, ordea, nekez:

- Zalantzazkoak: *bacallaoa, pulluac* (Gaminde *pulua*), *tollarea* (RyS *dolara*)
- Besteetan ez dira sabaikariak: *kinpullea* (Gaminde *kunpillie*), *ullea / ulea* (Gaminde *ullie*)
- Bustidura (?): *milla, nescatilla, espillua, belleguia*
- Erromantzezko maileguetan bai: *olloa, ollarra, tellea*

Sudurkarietan kontua konplexuagoa da, tartean <ñ> grafema ere baitugu.

Alde batetik, <n> eta <nn> grafemak dauzkagu, baina ez du ematen <nn> digrafoak sabaikaririk ordezkatzeko duenik; aitzitik, sudurkari arrunta (gogorra ote?) agertuko litzatekeen hitzetan daukagu:

- <nn> sudurkari ez-sabaikaria: *bustanna*⁶, *asunna*

Bestetik, sudurkari sabaikaria espero izango genukeen hitzeetan batzuetan <ñ> dugu eta besteetan <n> bere horretan; hortaz, ezin da jakin *i*-ren ondoko bustidura zegoenez.

- <ñ> sudurkari sabaikarituak: *oyña, yñarra, baguiña, vaziña, veyñac, ereyñosa, erreguiña, cañibeta, cochiña, layñoa, lencusiña, mandasayña, soyñeco, aranguiño*
- <n> sabaikarituak (?): *ynurria, sinistu, es-ynior, guino*

Beste hitz batzuetan balirudike <ñ> (edo <n>) yod sabaikaritu baten ordezkari izaten zuela, jakin badakigunez mendebaldeko hizkera zaharretan bokal sudurkariak bazeudela (eta sudurkari grafiko horien arrastorik ez dago RyS-en):

- *myña, seyña, burdiña, oracioño, osseyñ, punçuniño, ynes*

FONOLOGIA

Lexikoari helduta, Mikoletaren lanean zehar topatzen ditugun hitzetan igarri daitezkeen prozesu fonologiko nabarmenenak zerrendatuko ditut atal honetan.

6 Hala ere, Land *buztayña*

Bokalak

Hain zuzen ere, azken gertakizun grafikoari lotuta aipatu behar da **bokal sudurkari**en agerpena.

<ñ> grafemaren balizko frogaz gain:

- *orazioñoe* [oraziõê], *punzuniñoa* [puntzunĩõa], *miña* [mĩã], *diño* [dĩõ], *burdiña* [burdĩã], *seiña* [sẽĩa]

Badira beste txandakatze batzuk bokalen sudurkaritasun ezkutua iradokitzen digutenak. Kasurako, <n> ez da beti idazten, segun zein testuinguru grafikotan:

- *lau* / *launti* [lãũti], *arrautza* / *arrauntzea* [arrãũtzea]
- Adizki bukaerako -n: *nindia* [nindiã], *sã* / *san*

Halaber, bokal arteko kontsonante sudurkari bat egon zen hitzetan iraun omen zuen sudurkaritasuna:

- -VnV- > -VhV- zaharrak: *ardaoa* [ardãõa], *baea* [bãẽa], *lukainka* [lukãĩka], *samau* [samãũ]
- Hitz bukaerako -ae < *-ane, -oe < *-one, -io < *-ino, -au < *-anu:
 - *kanpaea* [kanpãẽa], *gastaea* [gastãẽa], *eskoea* [eskõẽa], *errazoea* [errazõẽa], *jupoe* [jupõẽ], *jamoe* [jamõẽ], *tximioa* [tximĩõa], *errefaua* [errefãũa]
- Bestelakoak (*yod* bat tartean): *baia* [baĩã], *ines* [ĩẽs]

Mendebalde nahiko zabal batean (behintzat Bizkai osoan, eta emankortasun maila desberdinekin Arabako euskara zaharrean, Gipuzkoako Urolan, Goierriin, eta Nafarroako Burundan) ohikoa den legez, deklinabideko **zenbait forma mugatutan -a + -a > -ea diptongoan disimilatzen dira**. Aldaketa hau berez morfofonologikoa da, kasuak baldintzatuta dagoelako (absolutibo eta datibo singularretan soilik testuan), baina sistematikoa denez hemen erakutsiko dut.

- ABS sg. -a: *alkandorea*, *kaobea*, *denporea*, *espatea*...⁷
- DAT sg. -ari: *deungeari*, *kriadeari*

Hizkera dialektologikoki mugatze aldera, aldaera lexiko batzuen **hitz hasierako u-** horretaz jardun behar dut, kontu fonetiko soila ez bada ere.

Horietako batzuk Mendebaldeko euskaran orokorrak izan dira, dirudenez dardarkariak edo urkariak eragindako i- > u- aldaketa fonetiko zaharra dela eta:

- *ulea*, *uruna*, *untzea* (< **ultzea*), *uria*

Sartaldeko hizkerek bereizgarri dituzten beste aldaera batzuk txistukariak eragindako i- > u- aldaketagatik izan zitezkeen (testuan *usena*⁸).

Beste batzuetan ematen du hitzaren jatorriari lotutako txandakatzea dagoela, hala nola, diptongo

⁷ ABS pl-eko *pantofleak* zalantzazko kasua da, bestalde ere *zapatak* daukagulako.

⁸ Beste hizkera batzuetan *usen*, *usan* (izain) ere badira.

baten soiltzetik dator eta:

- *urten* (< **egorten*), *uger*

Hala ere, azpimarratzekoa da *insaur* aldaera dugula, non Landuccik *unsaur* dakarren, eta orobat *ikuska*, non RyS-k eta Viva Jesus-ek *ukuzka* dakarten.

Bokalekin bukatzeko, aipagarria da, Gaminden ikusgai dauden formekin alderatuta behintzat, oso **bokal asimilazio gutxi** daudela, eta daudenak Mendebalde zaharreko orokorrak direla (*bildur*, *gitxi*, *agirtu*, *gusurra*). Horrenbestez, i,u bokalen ondoko silabetan -a > -e asimilazioaren zantzurik ez dago Mikoletaren hizkeran, baina bai Gaminderen 20. mendeko hizkera bilbotarretan (bizkaiera modernoan arrunta den moduan).

Eta antzera, diptongoetan gertatzen diren hiperkarakterizazioak ugariak dira Gaminderen testigantzetan (-e+>a > -ia,-ie; -i+a>-idxa,-idxe; -o+>a>-ua,-ue), eta Mikoletan bat baino ez dugu topatzen: *uste* + V > *ustia*, *ustiot*, *ustiosu*.

Kontsonanteak

Bestelako hizkerekin erkatuz gero, **hitz hasieran bi gertakizun** nabarmendu beharko genituzke Mikoletaren hizkerako herskarietan.

Latin-erromantzezko maileguetan (batez ere) beste euskalkietan **hitz hasierako herskari ahostuna** duten hitzek hizkera honetan ahoskabetu dira ia era sistematikoan. Prozesu hau RyS-n hasita bazegoen ere, Mikoletan ia erabatekoa da:

- k- (RyS *kibel/gibel*): *kerexea*, *kalzerdiak* (RyS *galzer*), *kañibeta*, *kinpullea* (Land *guipullea*), *kolkoa*, *korotza*, (*len*)*kusua*
- t- (RyS *tilista/dilista*): *titarea* (Land *ditarea*, Gaminde *titerie*), *titia*, *tollarea* (RyS *dolara*)
- p- (RyS *pelz/balz*): *pagoa*, *pekatu*, *puxiga* (IpEH *bixika* < *vessica*), *parkatu* (Land *barkatu*)

Hitz hasierako herskari ahostunei dagokienez, **d- eta g-ren arteko nahasketa** nabarmendu behar da honako hitzotan:

- *dustia* / *gustia* (batua *guztia*), *gedar* (batua *deiadar*), *gei* (batua *dei*)

d- > g- aldaketa zabalagoa izanda ere (sartaldeko hizkeretan ohikoa, eta Betolatzaren dotrinan ere *gueyes* 'deiez'), *dustia* aldaera eskualde honetako bereizgarria omen da⁹.

Bokal artean ere herskarien sail biak aipatu behar dira.

Batetik, beste euskalkietan herskari ahoskabea dena hemengo honetan herskari ahostuna daukagu:

- *ebagi*, *irigi*, *eugi*, *jaigi*, *urtigi*, *puxiga*, *sugatea* (baina *sutaldea*)

⁹ RyS-n *duztia*, *dustia*, *guztia* eta *gustia*

Bestetik, honako bi hitzotan bokal arteko herskari ahoskabeak ditugu:

- *irapazi*¹⁰, *jupoea*

Txistukari frikari eta afrikatuen sabaikaritzea orokorra da, Mendebalde zabalean bezala. Hona hemen adibide batzuk:

- -itz- > -tx-: *bakotxa*, *atxa*, *aretxa*, *gatxa*, *etxi* < **eitzi*
- -iz- > -x-¹¹: *askorea* (Gaminde *askorie*), *axea*, *nax* / *nas* (RyS *nayz*), *elexa*, *gox*, *nox*, *kerexea*

Hitz hasierako f-ren agerpena azpimarratzeko ezaugarria da¹², oro har euskara zaharrea ez zegoelako, bestelako hots batekin ordezkaturatuta. Zenbait testuingurutan agertzen zaigu:

- Mailegu berrietan: *fuerzea*, *forzadu*, *frijidu*, *faborea*, *fruteru*
- Latin *filu(m)* > *firu* (Gaminde *firue*)
- p- > f- hots aldaketa (sartaldekua): *frakak*
- Baina *ikoa* (latin *ficu(m)*) eta *urka* (latin *furca*) dauzkagu

Dardarkariei lotutako gertakizunen artean hauetaz aritu behar dugu:

Mendebalde zaharreko bokal arteko -r- gorde da (gerora -r- > -d-): *berarra*, *erurra*

Bokal arteko -l- > -r- honako hitzotan: *irargia*, *orioa*¹³, *firua*

Alderantzizko aldaketa ere gertatu da hitz honetan: *elestuna* (RyS, Land *ereztuna*)¹⁴

MORFOLOGIA

Izen Morfologia

Deklinabideari begira, kasu batzuetan jasotzen diren ezaugarriak aipatzekoak dira.

Ergatiboan ez dira singularreko eta pluraleko atzizkiak bereizten (Hegoaldean oso hedatuta): *-ak*

Genitiboan ere gauza bera gertatzen da; singularreko eta pluraleko atzizkia *-en* da:

- *aumen*, *gasaben* (sg); *gausena*, *calsetenac* (pl)

Destinatiboan (genitiboaren gainean eratua) bi forma topatzen ditugu lehian: *-ensat* / *-ensaco*¹⁵

10 RyS-n ere bai.

11 Hala ere, *gaixoa* eta *gaistoa* ditugu (*yod*-a asimilatu gabe), ez *gaxoa* (RyS, Land, Lazarraga) eta *gastoa* (RyS, Lazarraga, Land *gayztoa/gayxtoa*).

12 RyS-n ez dago

13 Landuccin *irargia* eta *orio* ere bai.

14 Arratiako hizkeran ere *elastun*, *elestun*.

15 Sozietiboaren gainean eratutako *-gasko*, eta alatiboaren gainean eratutako *-rako* atzizki destinatiboak ere erabilera oso antzekoetan aurkitzen ditugu testuan.

Ablatiboa eta prosekutiboa bereizita agertzen zaizkigu baina dagoeneko batzeko bidean zeuden; horren froga galdetzailean dugun *nondik / norik* alternantzia da (adiera ablatiboarekin).

Izan ere, bi atzizki ablatibo ditugu: *-rean* (mendebaldeko zaharra), *-(r)ik* (zaharra eta orokorra).

Halaber, forma pleonastiko bat ere erabiltzen da: *-reonik* (hurbila ere).

Pluraleko atzizkia, ordea, *-etarik* dugu.

Bizidunen ablatiboan *-aganic* forma zaharra dugu.

Prosekutiboan nagusi da *-ti* forma, nahiz eta *-tik* ere lekukotzen den. Pluralean *-etati*.

Kasu motibatiboa prosekutiboari lotuta egon ohi da, eta honetan ere morfema berdinak topatzen ditugu: *-aga(i)ti* (sg.), *-akaiti* (pl.), *-gaitik* (mgg.).

Kasu instrumentalean erabilera berezi bat nabarmendu behar da, hau da, bere denborazko balioa (*barikus* 'ostiralean'). Ipar Euskal Herriko hizkeretan orain arte erabilera arrunta da.

Kasu soziatiboa hizkeraren kokapenarengatik espero genituen *-gas / -kas* atzizkiak aurkitzen ditugu, *-kin* atzizkiaren arrastorik ez dugula.

Erakusleetan hainbat kontu aurkeztu behar ditugu.

Hasteko, Mendebaldeko euskalkian bezala singularreko forma “oblikuoak” (absolutiboa izan ezik) eta pluraleko formak erro berberetik abiatzen dira:

- 1. gradua: **on-*
- 2. gradua: **orr-*
- 3. gradua: **a-*

Hori horrela, 3. graduko ABS sg.-ko erakuslea *a* dugu, ERG sg.-ekoa *ak*, eta era berean ABS pl.-ekoa *aek*. 3. graduko GEN sg.-ko *aen* forma dugu euskara batuko *hain* hitzaren funtzioan ere.

1. graduko ABS pluralean *onek* eta *oneik* formak aurkitu ditugu, bigarrena Arratia eta Debagoiengan ere lekukotzen dena.

Forma indartuak ere ageri dira testuan, hala nola, *berorrek, berorri, beragas, eurak, euren, euron* eta *eurakas*.

Erakusleetatik eratorritako **artikulu hurbilak** ugari daude.

- *-au: bisarrau, urau, balsau, gelau*
- *-ori: sure mesedeori*

- *-ok: elestunok, mesedeok, pinturok, erretratuok, batzuok, besteok, platerok, trastuok*

Pertsona izenordainetan deigarria da ABS-ko *guk* forma analogikoki sortua¹⁶, *gu* eta *guk* aldaerekin batera (guztiak ABS), Mikoletak agertzen diguna.

Aditz Morfologia

Aditz jokatu gabeari heltzen badiogu, lehenik eta behin aditz izenean ipini beharko dugu arreta. Erromantzezko mailegu berrietan honako formak ditugu:

- *-adu/-idu > -eta: almorsetan, brindetan, obedietan, serbietan*

Bestelako aditzetan, *-tu/-du* bukatutakoetan berrikuntza baten lekukoak gara eta forma burutuaren gainean eratzen dira aditz izenak:

- *-tu > -tute: adituten¹⁷, astuten, biortuten¹⁸, gogaituten, aginduten¹⁹*

Arkaismo gisa bi gertakizun ditugu aditz izenaren eraketan.

Batetik, aditz izenetako tarteko *-i-* (garai batean euskara osoan arrunta, gaur Iparraldean bakarrik):

- *-n > -ite: emoiten, idaraiten, isaiteko²⁰*

Bestetik, *-zaite* Mendebaldeko atzizki zaharra²¹:

- *-saite: galsaiten, sarsaiten*

Aditzoina ere atal honetan kontuan hartzekoa da, zeren testuan zehar **edin* eta **ezan* laguntzaileekin batera erabiltzen baita; horiekin soilik, baina horiekin beti:

- *adi sate, bior ekida, buste dite, garbi esalus, geldi sate, konta ninzean, sufri esasu*

Aditz jokatuari dagokionez, nabarmendu behar den lehenengo ezaugarria aditz laguntzaileen eta aditz trinkoen ugaritasuna da.

Laguntzaileen artean, ohikoez gain (*izan, *edun, *edin*), **ezan* aditza gorde da²², Mendebaldeko **edutsi* eta *egin* ere ageri dira, eta, Mendebaldeko gramatikalizazio berrien ondorioz, *joan* eta *eroan* ohiturazko laguntzaileak ere.

¹⁶ *zu > zuek* moduan, *gu > guk* osatu zen. Gogora dezagun Donemiliagako “guc ajutu ez dugu”.

¹⁷ RyS-n *aditzen*, Lazarragan *adietan*, *adiketan*

¹⁸ RyS-n *bioretan*, Lazarragan *biurketan*

¹⁹ Lazarragan *aginketan*

²⁰ Hirurak RyS-n ere lekukotuta

²¹ Oñatin gaur arte bizirik

²² Hirutan bakarrik testu osoan; bi agintera eta aoristo perifrastiko bat

Trinkoetan, denbora desberdinetan jokatuta agertzen zaizkigunak 16 dira guztira:

- **edun, egin, izan, eroan, joan, egon, eretxi, erabili, eduki, ibili, *-iño-, ekarri, ikusi, etorri, jakin, irudi*

Beste 8 aditz aginteran soilik jokatzen dira:

- *entzun, jaigi, irigi, *-i(n)-, esan, ezarri, imini, itxon/itxadon*

Aginteraz gain, aditz trinkoak **orainaldian eta aoristo trinkoan** agertzen dira, baina inoiz ez lehenaldi inperfektiboan:

- *eve (izan zuen), (on) nerechu(n) (oniritzi nuen), etorsan²³ (etorri ziren)*

Aditz perifrastikoetan, aldiz, orainaldiko eta geroaldiko denborez gain, **lehenaldiko perfektua eta lehenaldiko perfektiboa** lekukotzen dira.

Perfektuan *izan* eta **edun* dira laguntzaileak:

- *vostac jodaude, estitu ecarri, nic ya beyn edandot, nondic ysanditu, nic emon dot orayn onetan, noric ecarri dous pastel-hoc?, au ondo eguin da*

Perfektiboan (aoristoan) **edin* eta *egin*²⁴ gehien erabiltzen diren laguntzaileak badira ere, *izan* duten formak ere sartuz doaz, eta **ezan*-ekin kasu bakar bat dugu:

- olerkietan: *mudadu nindia, vior equida, emon senguidan, esan senguida, astu senguia*
- elkarrizketan: *non eguin sidi, ycusleac eroan eguisanena*
- elkarrizketan ere: *Flandesic etorri sirea, vostac contaninçean*

Azpimarratu behar da **edun* aditz laguntzailea lehenaldian aspektu inperfektiboan soilik erabiltzen dela (adibidez, *eguiten nenduan*).

Aditzarekin bukatu aurretik, adizki jokatuetan erabiltzen diren **zenbait morfemaz** arduratuko gara.

1) Adizki bukaerako *-n* (lehenaldiko marka / erlatibozko marka / zehar galderetako marka / harridurazko perpausetako marka) :

- Oro har ez da idazkeran islatzen; batzuetan bai, besteetan ^ moduko marra gainean edo azentua ´; ahoskatzen zen? azken bokala sudurkaritua ote?
- Gertakizun berbera Iruñerri inguruko ibarretan, Nafarroa Garaiko erdigunean; eta halaber

23 Lakarrak aoristo trinkotzat (hau da, *etozan/etozen*) hartzen duen arren, zalantzarikoa da; 'etorri san'-en sinkopa izan daiteke, Gaminden ere agertzen dena (*etor da*). Hala ere, subjektua plurala da.

24 Izan ere, Gamindek lekukotutako hizkera bilbotarretan 3. pertsonako *egin* laguntzaile aoristoak iraun du: *gaidxen < egian ; gaixan < egisan* (Buia)

gaurko Bizkaiko sartaldeko zenbait hizkeratan (Uribe Kostan)²⁵.

2) Zu / zuek pertsoneri legezkiekeen adizkiak ez dira bereizten, *egin*-en (aginteran eta baldintzazkoetan) izan ezik:

- *dosu, sara, sagos, senguian*
- *eguisu / egisue ; basengui / vasenguie*

3) 3. pertsona lehenaldian Ø-/z-:

- *eve / evea* (zuen), *eudea* (zuten), *egua, eguisanena, eguien, eroena* (zeramana), *equida* (zekidan), *joeala* (zihoala)
- z-: *san, sirean, sidi* (zedin)

4) NOR pluralgilea -z / -it-

- -z orokortu da: *dogusanac, badeusas, daguisala, eguisanena, days, ninçean, essasus, dites, goasean, estoas, sagos, gagos, dagos, dagocasan, begos, daucagusala, betos, yminsus...*
- Baina -it- ere badago: *ditu, estitu*
- Adizki batzuetan lehian daude -it- zaharra eta -z berria: *dau(s)ela, ditusanac, baditus*
- Era berean, pleonasmok ere sortu dira: *basagoças, estabilsas*²⁶

5) NORK pluralgilea -e / -de zaharra (*edun*-en bakarrik)

- -e: *eguien, leye, vasenguie, valeguie, egisue, beguie, daroe, dereche, dauque, diño*
- -de: *daude, estaude, daudela, eudea*

6) *Izan* eta **edin* aditzetan -te morfema:

- *Izan*-en baldintza hipotetikoetan: *sinate, lisate*
- *Izan*-en ezinezko baldintzetan -teke pleonastikoa (+-an) berrikuntza: *nysatequea, sintequea, satequea, guinsatequea, sinatequea, sitequean*
- **Edin*-en ahaleran: *bustedite, guey emondite, xarridites*

Azkenik, bi aditz bikoterengainean jardun nahi nuke.

1) ***edun vs eduki**: **edun*-en trinkoa oso gutxitan, *eduki*-ren mesederako, lokuzio estatiboetan eta aoristo trinkoan soilik

25 Camino (2003:67. orr): Iraganeko adizkietan -n morfemarik ez izatea, Gesalätzen, Goñerrian, Oltza zendea, Olloibarren, Itzarbebarren, Eguesibarren, Elortzibarren, hego Esteribarren, Erroibarren, Artzibarren eta Aezkoan gertatzen den ezaugarria da. [Bizkaiko idazki zaharretan ere, -n gabeko adizkiak ditugu iraganean, esaterako RS-n edo Mikoletarengan. Egun Barrikan eta Urdulizen ere, -n gabeak dira adizkiok zaharren ahotan]

26 RyS *dabilz*, Gaminde *dabiltzes* (Begoña), *dabitzes* (Buia)

- *uste izan, nahi izan, behar izan, gura izan, atsegin izan, damu izan, balio izan, monta izan, falta izan*
- *nigas daucasun porfia, seuc daucas beguietan odehyac, serren daucat gaur asco sereguin, badauque calzerdiac puncturic ascaturic, seymbat ulle urdin daucada, daucagusala oean, se galantic dauco guelau, enesat daucan obena, sapore ona dauque, dauquanean gisonac criadu asco, non daucasu, emen daucat*

2) *egin* vs **ezan*

- *Egin*-en erabilerak: *egin*-en lokuzioetan (*euria egin, gatx egin*), subjuntiboa (*daguida ondo ymini bissarrau*), aoristo perifrastikoa (*astu senguia*), ahalera (*xandays*), geroaldia (*atera dayda contua*), agintera (*urtu eguisu sutaldean*).
- **Ezan* desagertzeko bidean: aoristo perifrastikoa (*nic vostac contaninçean*), agintera (*sufriessasu, garviessasus ene erropa dustiac*).

MORFOSINTAXIA

Azterketa ez litzateke osorik egongo morfologia eta sintaxiaren artean gauzatzen diren ezaugarri batzuk aipatu gabe.

Sintagma mailako gertakizunak

Koordinazio zaharra

Euskara zahar osoan zehar (eta Mendebaldean hobeto gordeta) garai batean arrunta izan omen zen egitura honek bi izen sintagma koordinatzen ditu:

- *X-gaz Y-ren _____ = X eta Y-ren _____*
 - *Peru xauna derechan vategaz, vere osseyñ Alonso-en artean*
- *X Y-gaz = X eta Y*
 - *non dago dustia orraziagas*

Izena + Perpaus erlatiboa ('NRel')

Egitura hau ere euskara zaharrari dagokio. Hona hemen adibideok:

- *onaco trapu yqzleac ecarri ditusanac*
- *memoria ene gasaben trapu ycusleac eroan eguisanena*

Perpaus mailako gertakizunak

Hizkera mailak

Elkarrizketan barrena hika, zuka eta berorika nahasita agertzen dira, pertsonaia baten edo bestearen ahotan. Laburbilduz, esan dezagun jauntxoak morroiari hika eta zuka aritzen zaizkiola, jaun bat besteari zuka eta berorika, eta morroien artean zuka eta hika.

- HIKA: *oavada esque, mutil ecarguc almorzua, yguc edaten, esac ser monta daude*
- ZUKA: *edo suc diñosu gusurra, seuc seure provechua ustiosu, ustiot sagosala loo, soas carran yricassu, ecargussu pastel basuc, nolan joasu euracas?, edandaysu ostera se esteysu gachic, sure visisea esadosu seyn da ...*
- BERORIKA: *seyn soyñeco asseguin dau ymini seure mesede orec?, errasti bustedite berori, dala berori aen ondo etorri seyn urte onac, se galantic dauco guelau berorrec, gausaric obena falta xaco berorri, emasteagayti diño berorrec, xamoe onegas edangodau berorrec ostera*
- HITANOA: *Mutil, yguc edaten se piperac piquetan **xoc**²⁷ (dau + hi alokutiboa mask. = dik)*

Komunztadura falta

Mikoletaren hizkeran **osagarri zuzen pluralerako** komunztadura falta ez da Arabako euskaran bezain ohikoa, baina badira adibide batzuk:

- EZ
 - *ecarsu azeytuna basuc*
 - *yminsu cobrutan trastuoc*
 - *gozo **derechalaco** ardaoac*
 - *ebaguiten **dau(s)ela** surrac* (honetan idazleak zuzendu zuen)
- BAI
 - *garviessasus ene erropa dustiac ta yminsus ordean*
 - *ta berac galdu **baditus**, pagadu **daguisala***

Zehar osagarriarekiko erabateko komunztadura eza ere badago perpaus honetan:

- *ycusleari escatuco **nax***

Kausa perpausak

Oso sarritan topatzen dugu menpeko perpaus mota hau elkarrizketan (azalpenezkoak ere izan daitezke), eta gehienetan *zeren* menperagailuaren aldaeraren bat (*serren, seren, se*) darabilte, adizki jokatuan atzizkirik agertu gabe:

²⁷ dau + -k alok. > *d-i-au-k > *jauk > jok. Gaminde *dxok* (Begoña, Buia)

- *seren* estosu biortuco, *seren* egusquiac esin esanley gusurric, *seren* besteoc dira Ytaliaric etorriac, *serren* penatan vior equida, *serren* da beroago goxetaraco, *segayti?* *serren* esandaroe, *serren* galdugueyñ xateco gurea, *se* esteysu gachic, *se* enas orren delicadua, *se* gausa balsa da bacartasuna, *se* neuc artuco dot neurea, *se* andra garvienac dira ...

Adibide gutxi batzuetan bestelakoak ere badarabiltzate:

- *segayti* enessat oneyc dira egunac beardogusanac esean sartu
- *guradolaco*, *suc* aguinduten *dosulaco*, *gozo* *derechalaco* ardaoac

Zehar galderak

Gauza bitxia da Bai/Ez-ko zehar galderetako *da* adizkiarekin jasotzen duguna. Balirudike dauzkagun perpausetan testuinguru horretan beti *den* ikusten dugula, gainontzeko menpeko perpausetan *dan* daukagun bitartean.

- Bai/Ez zehar galdera: *eguna den* *ecussu*, *ecusteco* *eser falta den*
- Perpaus erlatiboa: *urian dan* *pastelera* *garvienerean*, *dana* *leguez* *errazoea*, *eytendot guradana*

Egitura pasibo berezia

Egileak berak hizkeraren egitura pasiboaren berri ematen digu, eta benetan zaila da jakitea emankorra izan zen ala ez.

Izan laguntzailearen ordeaz, *egon* erabili bide du pasibo honek, “aditz nagusia” partizipioa + -(r)ik formapean egonda:

- *Joane eriduric egon ysanda Peruganic* (Joane Peruk zauritua izan da)
- *Esanic dago* (esaten da / esan da)

LEXIKOA

Hitz eratorpenari erreparatuz, hiru atzizki aurkeztuko ditut hemen:

1) *-(ta)sun* (izen abstraktoak eratzeko baliabidea)²⁸: *bakartasuna*, *erasuna/eratasuna*, *esauntasuna*, *ikusкатasuna*

2) *-ro* adberbiala (adjektiboetatik eratorria): *kuriosoro*, *deungaro*, *deunsuro*, *larguro*

3) *-la(n)* adberbiala (erakusleak eta galdetzaileak): *selan*, *nolan*, *selango*, *edoselan*, *orrelan*, *orrelaco*, *alan*, *alangoa*

²⁸ Zeharo urria Landuccin zein RyS-n

Lexiko bereizgarria

Hiztegia eta olerki-elkarrizketetan ageri diren hainbat hitzek hizkera sailkatzeko bidea ematen digute, eta horrela bi ardatzetan kokatu daitezke hauetako batzuk.

Mendebalde zaharrari dagozkion hitzak eta aldaerak:

- *idoro, urgazi, oneretxi*
- *ekusi, ebili, exildu, exetu, etxi*

Bizkai sartaldeko hitzak eta aldaerak:

- *abasusea, epetxa, inarra, tornua, ausi egin, irunsi*
- *gei emon, imini, biortu, itzi, itxon, dustia, usena, eskoea, inurria, burdiña*

Lexikoarekin bukatzeko, badira **esanahi berezia duten hitzak**, hizkera honek berariazkoak eduki ditzakenak. Horien artean, hauek nabarmenduko nituzke:

- *esarri* (isuri, bota)²⁹: *esarsu surirean*
- *aditu* IRGK (ulertu): *adituten dot emasteagayti diño berorrec*
- *aditu* IRGG (begiratu; bilatu)³⁰: *es nax ni adituten orrelaco gausetara; guisona aditu joeala*
- *eretxi* (izena izan): *Peru xauna derechan vategaz*
- *erabili* (ekarri)³¹: *besten vioza neugas darabilt*
- *dendaria* (jostuna), Landucciren hiztegia bezala.
- *aretxa* (zuhaitza), Landucciren hiztegia 'pagoa, zuhaitza', Gaminden 'zuhaitza'

29 RyS: *nesquea ezarc alborean* (313)

30 RyS: *aurrera adizen eztana* (423, 456); Gaminde (1986): *aitu* (Begoña), *aittu* (Buia)

31 RyS: *andra guztioac erçeti erabilico aude veti* (316)

ONDORIOAK

EZAUGARRI BATZUK SAILKATUTA

Arkaismoak

- *EZAN gorde da
- Ezeztapena *ze*
- *-di-* morfema EGIN-en
- Aditzoina + *EDIN/EZAN
- Aoristo perifrastikoa eta trinkoa
- Agintera trinkoa
- Ahalerako *-te* IZAN eta EDIN-en
- X-gaz Y koordinazioa
- Lexikoa: *oneretxi, urgazi*

Mendebalde zaharrekoak

- Bokal sudurkariak
- Ablatibo zaharra *-rean / -rik*
- Prosekutiboa *-ti /-etati*
- EGIN-en geroaldia
- Ahalera *-ke* gabea EGIN-en
- *EDUN 3.p.pl.: *daude*
- EDUKI *-auka-* erroko adizkiak
- JOAN/EROAN laguntzaileak
- Lexikoa: *idoro, ebagi, eugi, irigi, jaigi, urtigi, erurra, berarra*

Berrikuntzak

- /s/ eta /s/ bereizketarik ez (RyS-n bai)
- Ablatibo-prosekutibo berria *-tik*
- Adizkietako *-n* ez agertzea (RyS)
- 1. p. sg-eko adizkietan *-(e)n-*: *nengia, nendua, nintzean*³²
- 2 p. sg / pl bereiztea (*egisue, basengie*)
- *-zu-z > -us disimilazioa (*dous, daucas, egidaus*)³³
- *ditus/daus/dabilsas/sagosas* adizkiak
- Aditz izena *-tu* > *-tuten* (RyS-n ez)
- Ahalerako *-teke* pleonastikoa IZAN-en
- EDUKI-ren erabilera hedatua
- Komunztadura falta

Bizkaikoak

- Mugimenduko aditza + *-ten*
- *-io* > *-iño*: *punsuniñoa, konparasiñoi, diño*
- Lexikoa: *biortu, etxun, miña, ikoa, lei, edoselan*

Bizkai sartaldekoak

- *EDUN 3.p.pl.: *daude*
- SOZ *-gas/-akas*
- Lexikoa: *inurria, abasusea, gei, gedar, deunga, usena, frakak, firua, karran, seiña, baia, eskoea, kinpullea, bellegi, belu*

32 RyS-n ez: *neuen, neban, neguia*; Gaminden bai: *nengi, nendun*

33 RyS-n ezauz, *yndauz*

Mikoletaren testua osorik aztertuta, eta behin ezaugarri nagusiak sailkapen batean kokatuta, hizkeraren izaerari buruzko ondorio batzuk ateratzeko moduan gaude.

Lehenengoz, argi eta garbi esan dezakegu esku artean darabilgun hizkera hau **Mendebalde muturrekoa** dela. Horretan arkaismoak ugariagoak dira bere garaiko beste testuetan baino, alegia, aoristoaren agerpena (trinkoa eta perifrastikoa), koordinazio zaharra edota geroaldiko *egin* laguntzailea.

Hala eta guztiz ere, RyS-k **polimorfismo gehiago** erakusten du, hau da, morfema baliokide askoren txandakatzea. Hauxe daukagu esaterako **edun* aditzaren orainaldiko formetan (*dot/det*, *dogu/deg*, *dau/du/do*), edo aditz izenak osatzeko aukeretan (*-ten*, *-tzen*, *-etan*). Hori bai, Mikoletaren lanean ere badago lekurik horrelako polimorfismorako eta **edun*-en, hain zuzen ere, *dau*, *duna* eta *dolako* dauzkagu.

Aldi berean, **bazterreko berrikuntzak** agertuz doaz Mikoletaren lanean, geroago inongo euskalkitan islatuko ez direnak (Bilboko eragina oso eremu urrikoa izan delako), ez bada hurbileko Uribe Kostako edota Arratiako hizkeretan, edo Gamindek 20. mendean ikertu zituen hizkera bilbotarretan. Horien artean aipagarria da *-*zu-z* > *-us* disimilazioa osagarri plurala duten adizki iragankorretan.

Edonola ere, Mikoletaren euskara garbiro sartzen da **Bizkai sartaldeko** multzoan, Arabako euskaratik ondo bereizita (fonetika eta lexiko arloetan iruzkindu ditugun ezaugarriak tartean), eta sartaldeko berrikuntzetatik urrun: *-kin* sozietiboa ez da heldu, ezta 3. per. pl-eko *dabe* ere, edo lehenaldiko *z*- morfema.

Bukatzeko, aitortu dezagun **17. mendeko euskara** hau RyS-n lekukotzen denetik hurbilago dagoela, 20. mende bukaerako Begoña eta Buia auzoetako hizkeretatik baino.

Azken hauek aldaketa fonetiko nabarmenak jaso ondoren, hitzak desitxuratuta utzi eta orobat aditz paradigmak berrantolatu behar zituzten, aditz trinkoak pobretu bitartean. Azken buruan, Euskal Herriko hirigune handiekin gertatu den bezala, laster erdaldundu direnez (haien erdiguneak behintzat), aldameneko hizkerak eredu sendorik gabe gelditu dira; horrenbestez, hizkera bakoitza bere aldera begira egon da, beste eskualdeetatik etorritako berrikuntzak bereganatuz. Hortik behinola Bilboko euskararen bereizgarri izan ziren ezaugarri batzuen galera Buia eta Begoñako hizkeretan (hala nola *dustia* edota adizki bukaerako *-(e)n*-ren falta), eta Bizkai osokoak diren ezaugarri berrien orokortzea (kasurako, *dekot* eta *dostesu* tankerako adizkiak).

BIBLIOGRAFIA

ALDAI, GONTZAL. *Últimos restos del Aoristo Perifrástico en el euskera de Bilbao*, FLV 2008, 405-417.

CAMINO, IÑAKI. 2003. *Hego-Nafarrera*. Iruñea: Nafarroako Gobernua

GAMINDE, IÑAKI. *Bilboko euskara aztertze materialak*, FLV 1987, 207-250.

KNÖRR, HENRIKE & ZUAZO, KOLDO. 1998. *Arabako Euskararen Lekukoak: Ikerketak eta testuak*. Gasteiz: Eusko Legebiltzarra.

LAKARRA, JOSEBA. 1996. *Refranes y sentencias (1596) Ikerketak eta edizioa*. Bilbo: Euskaltzaindia.

MITXELENA, KOLDO. 1990. *Textos Arcaicos Vascos*. Donostia: EHU.

SARASOLA, IBON. 1990. *Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*. Donostia: EHU.

ZELAIETA, ANGEL. *Rafael Mikoleta Zamudio “Modo breve de aprender la lengua vizcaina”*, *Oihenart: cuadernos de literatura y lengua* n°7 1988, 135-214.

ZUAZO, KOLDO. 2014. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.

ZUAZO, KOLDO & GOITI, URTZI. 2016. *Uribe Kosta, Txorierra eta Mungialdeko euskara*. Bilbo: EHU.

ERANSKINAK

ORTOGRAFIA

● **Bokalak**

- ◆ Hitz hasieran /i/ beti <y>
 - *ysan, ydoro, ysi, yla, yru, ybaya, ycaza, yduria, ycuscatu, yluna...*
 - Salbuespenak: *irapaçi, hico*
- ◆ Diptongoetako *yod*-a beti <y>
 - *aydea, ayta, ayña, beyn, ereyn, ereyñosa, gayxoa, lucaynquea, mandasayña, nay, oyña, seyn, seyña*
 - Batzuetan ematen dut <y> honen arrazoia hurrengo kontsonantearen sabaikaritzea adieraztea edo azpimarratzea dela (*ayña, oyña*). Besteetan ez dakigu kontsonantea sabakaritzen zen ala ez.

● **Txistukariak**

- ◆ /s/ eta /s/-ren arteko bereizketa galdua: <s>, <ss>, <z>, <c> eta <ç> grafemen nahasketa
 - *astu, aussoa / auso, azala / asala, balsa, bizarra / bissarra, basterra, ysan, bisia, egusquia, eroçi, eronsi, essarri, guerisea, gusurra, assi / açia / asia, assurra, ossasuna, ussoa / usacumea, syla / zyla*
 - <n> baten ondoren gehienetan <ç>, baina batzuetan <s>: *aunça / basaunsa, burrunçia, dançea, punçuniñoa, uncea, araunçea / arrausa, esconsea, onsa*
 - hitz hasieran beti s-: *sura, sorsi, suria, sesena, suloa, seren* (*çeatu, zaguia* izan ezik)
- ◆ <x>, <g> eta <j> grafemen nahasketa
 - Ez da erraza jakitea zein hotsi legozkiokeen grafema hauek, hitzez hitz emaitza desberdinak ditugu, batzuetan /j/ eta besteetan /j/
 - *oxala* (RyS *ojala*), *egildu* (RyS *exilic*), *xarroa* (Gaminde *yarroa*), *xo* (Gaminde *yo*), *xaquin* (Gaminde *yaquiñ*).
 - hitz hasieran: *xaya, xauna, xausi, xamoea...*
 - *agea / axechu / axea*
 - *frigidu*
 - *elejea / elexara, xupoea / jupoea, xosi / jostorraza, chijea / chishea*
- ◆ Txistukari afrikatuei legozkiekeen <s>, <ss>, <z>, <ts>, <ç>, <sz> eta <zs> grafemak
 - Batzuetan <s> soila: *yracasi, ames-eguin, arrausa, basuc, bisuc, esea*
 - Besteetan <ss>: *amessa, asso, asseregoa, francessea*
 - Gutxi batzuetan <ts>: *ytsuric, ytsasoa, atsoa, etsea*
 - Batzuetan <z> afrikatua: *garraza, gaza, oz / ossa, maza, mazorria, mayaza,*

martizena, puzeguin, puza, vioza, viza, orraza, ardaza

- Bestelakoak <ç>, <sz>, <zs>: *amaraça, emereçi, yçutu / ytsuric, osza, ozsoa*

◆ <ch> digrafoa ondo erabilia: /tʃ/

- *arecha, achurra, bacochoa, barrachicoa, epecha, echi, echun, gacha, guichi, mochu, choria, chacurra, chistua, chua, chijea*

● **Ozenak**

◆ <r> eta <rr> **banaketa librean (irizpiderik ez)**

- *amaradu, berrori (ABS+DAT), berori (ABS+DAT), angerrua, arauñça, aterra, varuan, belaria, oraza, erasti, essari, guerro, amarr / amaraça, liburrua, madarria*

◆ <l> eta <ll> **banaketa librean: batzuk sabakariak, besteak nekez**

- *bacallaoa, pulluac (Gaminde pulua), tollarea (RyS dolara)*
- *kinpullea (Gaminde kunpillie), ullea / ulea (Gaminde ullie)*
- *milla, nescatilla, espillua, belleguia*
- *olloa, ollarra, tellea*

◆ <n> eta <nn> **banaketa librean + <ñ> grafema (bustidurarik?)**

- <nn> sudurkari ez-sabaikaria: *bustanna, asunna*
- <ñ> yod sudurkaritutik: *myña, seyña, burdiña, oracioño, osseyñ, punçuniño, ynes?*
- <ñ> sudurkari sabaikaritua: *oyña, yñarra, baguiñea, vaziña, veyñac, ereyñosa, erreguiña, cañibeta, cochiña, layñoa, lencusiña, mandasayña, soyñeco, aranguiño*
- <n> sabaikaritua?: *ynurria, sinistu, es-ynior, guino*

● **Bestelako kontsonanteak**

◆ Ezpainkariak: <u>, <v> eta ez dira bereizten

- *auasusea, alauea, fauorea, garuiric, arrisauala, ouia*
- *vizarra / bizarra; bisia / visisea; vorondatea / borondatea; betetu / vetetu; veyn / beyn*

◆ Oso <h> gutxi

- Ortografikoak: *humeac, hurtea*
- Etimologikoak: *hamua, herlojua, hico*

FONETIKA ETA FONOLOGIA

● **Bokalak**

◆ Bokal sudurkariak

- <n> ez da beti idazten:
 - *lau / launti* [lãũti], *arautza / arrauntzea* [arrãũtzea]
 - Adizki bukaerako -n: *nindia* [nindiã], *sã / san*
- <ñ> grafemak bokalaren sudurkaritasuna adieraziz:
 - *orazioñoe* [oraziõẽ], *punzuniñoa* [puntzunĩõa], *miña* [mĩã], *diño* [dĩõ], *burdiña* [burdĩã], *seiña* [sẽĩa]
- -VnV- > -VhV- zaharrak:
 - *ardaoa* [ardãõa], *baea* [bãẽa], *lukainka* [lukãĩka], *samau* [samãũ]
- Hitz bukaerako -ae < *-ane, -oe < *-one, -io < *-ino, -au < *-anu:
 - *kanpaea* [kanpãẽa], *gastaea* [gastãẽa], *eskoea* [eskõẽa], *errazoea* [errazõẽa], *jupoe* [jupõẽ], *jamoe* [jamõẽ], *tximioa* [tximĩõa], *errefaua* [errefãũa]
- Bestelakoak: *baia* [baĩã], *ines* [ĩẽs]

◆ Hitz bukaerako -a-ren disimilazioa

- ABS sg. -a: *alkandorea, kaobea, denporea, espatea...*
- ABS pl. -ak: *zapatak, pantofleak*
- DAT sg. -ari: *deungeari, kriadeari*
- -e > -a: *auma, andra, deunga, baga, lora*

◆ Hitz hasierako u-

- Dardarkariak eragindako i > u: *ulea, uruna, untzea (<*ultzea), uria*
- Txistukariak eragindako i > u: *usena*
- Bestelakoak: *urten, uger* (baina *insaur*)

◆ Hitz bukaerako -u

- Erromantzezko maileguak: *almorzu, kontu, ebanu, probetxu, sonbreru, ziertu...*

◆ Bokalen irekitzea

- Dardarkariak eragindako e > a
 - *barri, txarria, uzkarra, sarratu*
 - baina *berri(z), txiker*

◆ Bokalen ixtea

- Sudurkariak eragindakoa

- *eronsi* < **eransi*
- *etxun*
- Asimilaziozkoak
 - Erregresiboa: *bildur*, *gitxi*, *agirtu*, *gusurra*
 - Progresiboa: *iper-* > *ipir-*, *sinistu* < **sinestu*
- Bestelakoak
 - *ustia* < *ustea*
- ◆ Diptongoen soiltzea
 - -ain- > -an-: *ganean*, *sana*; baina *laiñoa*, *mandasaiña*, *salsain*
 - *arpegia* < *aurpegia*
 - *gedar* < **geadar* < **deadar* < **deiadar*
- ◆ Aferesia
 - *gasabea* < *ugasabea*

● Kontsonanteak

- ◆ Hitz hasierako herskari ahoskabeak
 - k- (beste euskalkietan g-) (RyS *kibel/gibel*)
 - *kerexea*, *kalzerdiak* (RyS *galzer*), *kañibeta*, *kinpullea*, *kolkoa*, *korotza*, *(len)kusua*
 - t- (beste euskalkietan d-) (RyS *tilista/dilista*)
 - *titarea* (Gaminde *titerie*), *titia*, *tollarea* (RyS *dolara*)
 - p- (beste euskalkietan b-) (RyS *pelz/balz*)
 - *pagoa*, *pekatu*, *puxiga* (IpEH *bixika* < *vessica*), *parkatu*
 - p-ren galera u-ren aurretik: *uzker* < *puzker* (“putz oker”)
- ◆ Hitz hasierako herskari ahostunak
 - d- eta g-ren nahasketa: *dustia* / *gustia*, *gedar* < **geadar* < **deadar* < **deiadar*, *gei*
- ◆ Bokal arteko herskariak
 - Ahostunak (beste euskalkietan ahoskabe)
 - *ebagi*, *irigi*, *eugi*, *jaigi*, *urtigi*, *puxiga*, *sugatea* (baina *sutaldea*)
 - Ahostunen erorketa
 - *eugi* < **edugi*
 - *ezaun* < **ezagun*
 - *itxon* < *itxadon*

- *jeltsoa* < **igeltsua*
- Ahoskabeak (beste euskalkietan ahosgabe)
 - *irapazi*
 - *jupoea* < **jubboea*
- ◆ Txistukarien sabaikaritzea
 - -itz- > -tx-
 - *bakotxa, atxa, aretxa, gatxa, etxi* < **eitzi*
 - -iz- / -is- > -x-, -s-
 - *askorea* (Gaminde *askorie*), *exetu* < **izetu*, *exildu* < *isildu*, *gerisa, axea, nax / nas* (RyS *nayz*), *elexa, gox, nox, kerexea*
 - baina *gaixoa, gaistoa*
- ◆ Bestelako sabaikaritzeak
 - il > ll: *lloba* < *iloba, milla, nescatilla, espillua, belleguia*
 - Adierazkorra: *txua, txoria, txakurra, tximioa, motxua*
- ◆ Hitz hasierako f- (RyS-en ez daude)
 - *firua* < **filu* (Gaminde *firue*)
 - *frakak* < *prakak*
 - Mailegu berriak: *fuerzea, forzadu, frijidu, faborea, fruteru*
 - Baina: *ikoa, urka*
- ◆ Bokal arteko dardarkariak
 - Bokal arteko -r- zaharra: *berarra, erurra*
 - -l- > -r- : *irargia, orioa, firua*
 - -r- > -l- : *elestuna*

IZEN MORFOLOGIA

● Absolutiboa

- Artikulu definitua singularrean:
 - -a + -a > -ea: *alcandorea, caobea, demporea, espatea...*
 - -e + -a > -ea: *adisquidea, atea, borondatea, elefantea...*
 - -a/a eta -e/a ez dira bereizten. Ondorioz -e > -a: *auma, lorak* (erg, sg.)
 - -i + -a > -ia / -o + -a > -oa / -u + -a > -ua
 - -oa, -ua ondo bereizita, baina erromatzezko maileguak beti -u-rekin: *almorzu, contu, ebanu, provechu, sombreru, ciertu...*
- Pluralean
 - -a + -ak > -ak (ez -aak arkaismoa): *zapatac, baina pantofleac.*
- Artikulu hurbila:
 - SG -au (-a + -au > -au, EZ **-eau): *escritoriau, guelau, urau, bisarrau*
 - PL -ok: *pinturoc, erretratuoc, plateroc, trastuoc*

● Ergatiboa

- singularra eta plurala ez dira bereizten: -ak (mgg. -k)

● Datiboa

- SG -ari (-a + -ari > -eari): *deungueari, criadeari*
- PL -ai: *sereguinay*

● Genitiboa

- singularra eta plurala ez dira bereizten: -en
 - pl. *xauneanac* ??
- -a+-en > -en: *aumen, gasaben* (sg); *gausena, calsetenac* (pl)

● Destinatiboa

- Genitiboaren gainean eratuta, hortaz sg/pl ez bereizita
- Bi forma lehia: -ensat / -ensaco (pl??)
- Mugagabeen -a + -en > -aen: *gorraensaco*

● Prolatiboa

- Beti mugagabeen: -sat

● Ablatiboa/Partitiboa/Prosekutiboa

- Ablatiboa eta prosekutiboa bereizita baina batzeko bidean: *nondic = noric*

- Ablatiboa: -(r)ean, -reonic (hurbila, pleonastikoa), -(r)ic (zaharra), -aganic (zaharra)
 - Partitiboa: -(r)ic / -etatic (ablatibo zaharra) (+ zenbakiak)
 - Prosekutiboa: -(e)ti(c), pl. -etati
- **Inesiboa**
 - Arkaismo eza (-a + -an: -aan, VJ -ean): *faltriqueran, caxan*
 - Bizidunak eta bizigabeak ez ondo bereizita: *xaunetan*
- **Instrumentala**
 - Denborazko balioa: *baricus* (mgg)
- **Soziatiboa**
 - SG -agaz
 - PL -(a)kaz (*puñucas*)
 - Koordinaziozko balioa:
 - Peru xauna derechan vategaz, vere osseyñ Alonso-en artean
 - dustia orraziagas
 - -gasco / -raco / -ensaco antzera erabiliak testuinguru berberetan
- **Motibatiboa**
 - SG -aga(i)ti (zaharra)
 - PL -akaiti
 - MGG -gaitik

Erakusleak

	SG			PL		
	1. gradukoa	2. gradukoa	3. gradukoa	1. gradukoa	2. gradukoa	3. gradukoa
ABS	<i>au</i>	<i>ori</i>	<i>a</i>	<i>onek / oneik³⁴</i>	<i>ok³⁵</i>	<i>ae</i>
ERG	<i>onek</i>	<i>orrek berorrek</i>	<i>ak</i>	-	-	<i>ae eurak</i>
DAT	<i>oni</i>	<i>berorri</i>	<i>ari</i>	-	-	-
GEN	-	<i>orren</i>	<i>aen³⁶</i>	<i>onena</i>	-	<i>euren euren</i>
PROS	<i>onetati</i>	-	-	-	-	-
INES	<i>onetan</i>	-	-	-	-	-
ABL	<i>onerean</i>					

34 Hego-mendebaldeko hizkeretan *oneik* (Debagoiena: Zuazo)

35 pastel-hoc, tapiz hoc

36 VS aen, RyS aen, aren, arren, ain

SOZ	<i>onegas</i>	<i>orregas</i>	<i>beragas</i>	-	-	<i>eurakas</i>
------------	---------------	----------------	----------------	---	---	----------------

Artikulu definitu hurbilak

SG		PL
1. gradukoa	2. gradukoa	
<i>bissarrau</i> <i>urau</i> <i>balsau</i> <i>guelau</i>	<i>mesedeori</i>	<i>elestunoc</i> <i>mesedeoc</i> <i>pinturoc</i> <i>erretratuoc</i> <i>bassuoc</i> <i>besteoc</i> <i>plateroc</i> <i>trastuoc</i>

Pertsona izenordainak

	1. sg	2. sg	1. pl	2. pl
ABS	<i>ni</i>	<i>su</i>	<i>gu</i> <i>guek</i> <i>guk</i>	<i>suek</i>
ERG	<i>nik</i> <i>neuk</i>	<i>suk</i> <i>seuk</i>	<i>guk</i>	<i>suek</i>
GEN	<i>ene</i> <i>neure</i>	<i>sure</i> <i>seure</i>	<i>gure</i>	<i>suen(a)</i>
SOZ	<i>nigas</i> <i>neugas</i>	<i>sugas</i>	-	-
ALA	-	<i>seugana</i>	-	-
DEST	<i>enetzat</i>	-	-	-

ADITZ MORFOLOGIA

ADIZKI JOKATUGABEAK

Forma burutua

- Mailegu berriak -adu: *almorzadu, dobladu, encomendadu, erregadu, mudadu, pagadu, trucadu*
- Mailegu berriak -idu: *fingidu, componidu*
- Mailegu zaharrak -atu: *bedeyncatu*
- Mailegu zaharrak -itu: *aditu*

Partizipioa

- Arkaismoa: beti -(r)ik atzizkiaz baliatuta, inoiz ez *aditza + eta, -ta/-da*.

Aditz izena + forma burutugabea

- -adu > -eta(n): *almorzetan, brindetan, despachetan, negocietan, holguetaco, piquetan*
- -idu > -ieta(n): *cumpletaco, obedietan, servietan*
- -tu/-du > -tute(n)/-dute(n): *adituten, astuten, biortuten, gogaytuten, elduteco, aguinduten*
- -n > -te(n): *eguiten, egotea, esateco, yrauten, xoaten, xateco*
- -Si > -Ste(n): *ecusteco, yrgasteco, xasten*
- Arkaismoak:
 - -gi > -gite(n): *xayguita, ebaguiten*
 - -n / -V > -ite(n): *emoyten³⁷, ydarayten³⁸, ysayteco³⁹, yminiten?*
- Bereziak:
 - Silaba bakarreko erroak > -tzaiten: *galsayten, sarsayten*
 - *betetu > betetan*

Aditzoina

- EDIN eta EZAN-ekin bakarrik baina horiekin beti
 - *adisate, vior equida, bustedite, eguin sidi, garviessasus, gueldisate, gordebite, ysandin, xarridites, xarribidi, contaninçean, sufriessasu*
 - hala ere *xarri*, EZ ***xar*

Geroaldia

- Beti forma burutua + -ko (Mendebalde zabala)

Mendebalde zaharreko ezaugarriak

- Aldaerak:
 - Aditz hasierako e-: *ecussi, ebili, exetu (izeki), exildu, echi (itxi), (esan/isan)⁴⁰*
 - -gi bukaerako aditzak (-ki orokorrean): *xaygui, ebagui, eugui, irigui⁴¹*
 - Bestelakoak: *guey emon (dei egin, deitu), emon, ymini, urten, ysi, aitatu, biortu, loo eguin, echun⁴²*

37 RyS: *emaitê, emaytea, emayten, emaytê*

38 RyS: *edaraytê, yderaytê*

39 RyS: *yzaytea, yzayten*

40 RyS: *ecusi, ebili, exequi, exilic, echi*

41 RyS: *jaigui, ebagui, euguiarren, Ø*

42 RyS: *Ø, emon/emongo, yfinc/ybini, hurten, yssi, ayta, biortu, lo, echun*

- Lexiko berezia: *ydoro, urgazi, on erechi, eroan*⁴³
- Semantika berezia:
 - *esarri* (bota, isuri)⁴⁴: *esarsu surirean*
 - *aditu* IRGK (ulertu): *adituten dot, emasteagayti diño berorrec*
 - *aditu* IRGG (begiratu; bilatu)⁴⁵: *es nax ni adituten orrelaco gausetara; guisona aditu joeala*
 - *eldu* + *zeri* (zertaz arduratu): *gueyago eyten dot elduteco neure sereguinay*
 - *erechi* (deitu, izena izan): *Peru xauna derechan vategaz*
 - *erabili* (ekarri)⁴⁶: *besten vioza neugas darabilt*

ADIZKI JOKATUAK: JOERA OROKORRAK

- Aditz laguntzaileak (8)
 - IRGG: izan, *edin, joan
 - IRGK: *edun, *edutsi, egin, *ezan, eroan
- Aditz trinkoak (24 guztira):
 - *edun, egin, izan, eroan, joan, egon, eretxi, erabili, eduki, ibili, *-iño-, ekarri, ikusi, etorri, jakin, irudi (16)
 - Aginteran soilik: entzun, jaigi, irigi, *-i(n)-, esan, ezarri, imini, itxon/itxadon (8)
- *Ez*⁴⁷ + adizkia ia beti elkartuta + aldaketa fonetikoak islatuta: *estot, esta, enas*
- Aditz nagusia + laguntzailea askotan elkartuta ere (*jodaude, contaninçean, xayguitenda...*), batez ere lokuzio estatiboetan (*naydau, guradot*)
- Sinkopak:
 - *naystot*
 - *ustiot, ustiosu*
 - *yminicosu, ydorocogu*
 - *bacarr, bira*
- Adizki bukaerako -n (lehenaldiko marka / erlatibozko marka / zehar galderetako marka / harridurazko perpausetako marka) oro har ez da idazkeran islatzen; batzuetan bai, besteetan ^ moduko marra gainean edo azentua ´.
 - Ahoskatzen zen?

43 RyS: *ydoro, urgaçi, on erexteco, eroa*

44 RyS: *nesquea ezarc alborean* (313)

